

## 20. FITXA "Administrazio publikoetan Lehen lanbide-esperientzia izateko programa" – LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua

**Norentzat:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Foru-aldundiak, **mankomunitateak**, kuadrilak eta **Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak**.

**Sarbide-esteka** [LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzua](#)

**Erreferentziazko araudia:** [2021/12/13ko EBAZPENA1](#)

**Eremuak:** Euskal Enplegu Zerbitzua

**Zenbatekoa:** 7.516.326€ - NGEU Funtsak

**Aurkezteko epea:** 2022ko otsailaren 1etik **2023ko urriaren 31ra**

### Laburpena

Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, «Zainketen eta enplegu-politiken ekonomia berria» deituriko VIII. palanka politikan, 23. Osagaia dago «lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriei» buruzkoa, eta Espainiako lan-merkatuaren egiturazko erroka garrantzitsuei heltzen diena; besteak beste, egiturazko langabezia eta gazteen langabezia murriztea eta enplegu-politika aktiboen eraginkortasuna eta efizientzia handitzea.

Horrela, aipatutako 23. Osagaien proposatutako erreforma eta inbertsioen artean, 1. Inbertsioan «Gazte enplegua» deiturikoan txertatzen da administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionala izateko programa. Programa honen babesean diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduaren bidez ezarri dira.

Programa honen helburua 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako **gazte langabeak kontratatzea da**, baldin eta haien prestakuntza-etapa osatu eta egiaztatu bada ezagutzei dagokienez. Xedea lan-kontratu baten bidez **administrazio publikoen eremuan enpleguko lehen esperientziak eskuratzea da**, bai eta langileak lanposturako beharrezko trebetasun sozial eta profesionalak eskuratzea ere.

### Onuradunak

Laguntza hauen onuradunak honako hauek dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, Foru-aldundiak, mankomunitateak, koadrilak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak.
- Aurrekoen mendekoak diren zein haiekin lotura duten autonomia-erkidegoko eta tokiko erakunde-sektore publikoa osatzen duten eta Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektorre Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatuta dauden organismoak eta entitateak.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Kontratuen iraupena, **gutxienez, hamar hilabetekoa izango da, eta gehienez, hamabi hilabetekoa**. Lanaldia lanaldi osokoa izango da.

Kontratuak bi hilabeteko epean hasi beharko dira esleipenaren ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik hasita.

Eskabideak aurkezteko epea **2022ko otsailaren 1etik 2023ko urriaren 31ra artekoa izango da**.

## Jarduera-lerroak

Pertsonak kontratatzekeo diru-laguntzak ,emango dira praktiketako kontratuaren modalitatean.

Proiektuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

→ Kontratutako pertsonak erakunde onuradunen eskumenekoak diren eginkizunak edo zereginak bete beharko dituzte.

→ Kontratatuak diren langabeen prestakuntza eta praktika profesionala sustatu beharko da.

→ Erakunde onuradunek informazio profesionala, orientazioa edo prestakuntza eman beharko diete hartzaileei, diruz lagundutako kontratuen indarraldian, eta dagozkien lan-arriskuen prebentzioko betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

→ Langileen Estatutua aplikatuko da.

→ Kontratazio horiek ezin izango dituzte lanpostuen zerrendetan, plantillan zein bestelako giza baliabideen antolaketa-moduetan jasota dauden edo ez dauden egiturazko lanpostuak bete, baldin eta postu horiek erakunde kontratatuarekin kontenplaturik eta aurrekontuetan hornituta badaude.

## Laguntzen zenbatekoa eta mota

Honako hau izango da Norbera Babesteko Ekipamenduen (NBE) diruz lagun dezaketen gastuaren gehieneko zenbatekoa, kontratatutako pertsonaren Gizarte Segurantzako kotizazio-taldearen arabera:

→ 9tik 5era bitarteko kotizazio-taldeak: 369,07€ urtean.

→ 4tik 1era bitarteko kotizazio-taldeak: 553,60€ urtean.

Eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa aurkeztutako proiektuan jasotako aurreikuspenen arabera kalkulatu da, horien artean: kontratatu beharreko pertsonen kopurua, horietako bakoitzaren kontratazio-hilabeteak eta dagozkien Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea. Hauek dira zenbatekoak:

→ 9tik 5era bitarteko kotizazio-taldeak: 1.783,83€ kontratatutako pertsona eta kontratazio-hilabete bakoitzeko (21.405,94 euro kontratazio-urte bakoitzeko).

→ 4tik 1era bitarteko kotizazio-taldeak: 2.675,74€ kontratatutako pertsona bakoitzeko eta kontratazio-hilabete bakoitzeko (32.108,92 euro kontratazio-urte bakoitzeko).

## Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Soldata-kostuak (Gizarte Segurantzako kontzeptu guztiak kotizazioa barne) eta norbera babesteko ekipamenduen kostuak (NBE) diruz lagunduko dira.

## Interesekeo beste alderdi batzuk

Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak jasotzen dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskabide-inprimakira sartzeko erabili beharrekoa, helbide honetan eskura daiteke: [https://www.euskadi.eus/diruz\\_laguntza/2021/pex-2022/web01-tramite/eu/](https://www.euskadi.eus/diruz_laguntza/2021/pex-2022/web01-tramite/eu/)